

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2006/12/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA  
KONTSEILUARENA, 2006ko apirilaren 5koa, hondakinei buruzkoa

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/12/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de abril de 2006, relativa a los residuos (Diario Oficial de la Unión Europea, L 114 de 27/4/2006)*»

**2006/12/EE ZUZENTARUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2006ko apirilaren 5koa,**

**hondakinei buruzkoa**

**(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Ituna -bereziki  
Itunaren 175. artikulua- aztertu dute,

baita Batzordearen proposamena ere,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena  
aztertu dute<sup>1</sup>,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote  
aurretik,

Itunaren 251. artikuluan<sup>2</sup> ezarritako prozedurari  
jarraiki,

- (1) Kontseiluaren 75/442/EEE Zuzentaraua, 1975eko uztailearen 15ekoa, hondakinei buruzkoa<sup>3</sup>, zenbaitetan aldatu izan da eta funtsezko aldaketak izan dira<sup>4</sup>. Komenigarria da, arrazionaltasunaren eta argitasunaren mesedetan, Zuzentaria kodetzea.
- (2) Hondakinak kudeatzeari buruzko edozein arauren funtsezko helburuak gizakiaren osasuna eta ingurumena babestea izan behar du; hondakinak biltzeak, garraiatzeak, tratatzeak, biltegitratzeak eta gordetzeak eragindako ondorio kaltegarrien aurka babestea, hain zuzen ere.
- (3) Erkidegoan hondakinen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, behar-beharrezkoa da terminologia bateratua eta hondakinen definizioa izatea.
- (4) Hondakinak kudeatzeko eta balorizatzeo arau eraginkorrak eta koherenteak, salbuespenak salbuespen, ondasun hauei

ezarri behar zaizkie: edukitzaileak botatzen dituen ondasun higigarriei, nahitaez bota behar dituen ondasun higigarriei edo botatzeko asmoa duen ondasun higigarriei.

- (5) Garrantzitsua da hondakinak balorizatzeari eta balorizazio-materialak lehengai gisa erabiltzeari lehentasuna ematea, baliabide naturalak zaintzearen. Beharrezkoa izan daiteke arau bereziak ezartzea, berrerabil daitezkeen hondakinentzat.
- (6) Ingurumena ahalik eta gehien babesteko, beharrezkoa da estatu kideek hondakinak arduraz ezabatzen eta balorizatzen direla bermatzeaz gain, hondakinen ekoizpena gutxitzea helburu duten neurriak hartzea; horretarako, bereziki, teknologia garbiak, eta birziklatu eta berrerabili daitezkeen produktuak sustatuko dituzte, hondakin balorizatuak komertzializatzeko gaur egun eta gerora izan daitezkeen aukerak kontuan hartuta.
- (7) Gainera, estatu kideen legedien arteko desberdintasunek, hondakinen ezabapenei eta balorizazioei buruzkoek, eragina izan dezakete ingurumenaren kalitatean eta barne-merkatuaren funtzionamendu onean.
- (8) Garrantzitsua da Erkidegoa bera osotasunean gai izatea berak sortzen dituen hondakinak ezabatzeko, eta desiragarria estatu kideek, nor bere modura, helburu hori izatea.
- (9) Estatu kideek hondakinak kudeatzeko planak egin behar dituzte, helburu horiek bete daitezkeen.
- (10) Komenigarria da hondakin-mugimenduak murriztea, eta, horretarako, estatu kideek beharrezko neurriak hartzea nor bere kudeaketa-planen baitan.
- (11) Ahalik eta babes-mailarik handiena eta kontrol eraginkorra bermatzeko, behar-beharrezkoa da hondakinak ezabatzeko eta balorizatzeo enpresen baimena eta kontrola hitzartzea.
- (12) Beren hondakin propioak tratatzen edo hondakinak balorizatzen dituzten zenbait establezimendu beharrezko baimena

<sup>1</sup> EO C 112, 2004.4.30ekoa, 46. or.

<sup>2</sup>Europako Parlamentuaren Irizpena, 2004ko martxoaren 9koa (EO C 102 E, 2004.4.28koa, 106. or.) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko urtarrilaren 30ekoa.

<sup>3</sup>EO L 194, 1975.7.25ekoa, 39. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak (EE) (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

<sup>4</sup> Ikus III. eranskina, A zatia.

izartetik libre egon daitezke, baldintza jakinetan eta beti ere ingurumena babesteko betebeharrak betetzen badituzte. Establezimendu horiek erregistroan jasota egon behar dute.

(13) Hondakinak ekoizten direnetik behin betiko ezabatzen diren arteko jarraipena bermatzeko, komenigarria da, halaber, hondakinekin lotura duten bestelako enpresei baimena ematea eta horiek behar bezala ikuskatzea; esate baterako, hondakinak biltzen, garraiatzen eta komertzializatzen dituzten enpresei.

(14) Hondakinak ustiatu ondoren ordaindu ezin diren kostuak honako printzipioaren arabera ordainduko dira: "kutsatzen duenak ordaindu behar du".

(15) Zuzentarau hau ezartzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onetsiko dira. Erabaki horrek Batzordeari dagozkion egikaritze-eskumenak gauzatzeko prozedura ezartzen du<sup>1</sup>.

(16) Zuzentarau honek ez die eragin behar zuzentarauak barne-zuzenbidean sartzeko transposizio-eepeen inguruan estatu kideek dituzten betebeharrak; horiek III. eranskinean, B zatian, aipatzen dira.

#### HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

##### *1. artikulua*

1. Zuzentarau honetan, hitz hauek definizio hau dute:

a) "hondakina": I. eranskinean aipatzen diren kategorietako bati dagokion edozein substantzia edo objektua, eta edukitzaileak bota duena, botatzeko asmoa duena edota nahitaez bota behar duena;

b) "ekoizlea": hondakinak ekoizten dituen edozein pertsona ("lehen ekoizlea") edota aldez aurretik tratamenduren bat, nahasketa edo bestelakoren bat egin eta hondakinen osaeran edo berezkotasunean aldaketaren bat eragiten duen pertsona oro;

c) "edukitzailea": hondakinak ekoizten dituen, edo hondakinak berekin dituen pertsona fisikoa edo juridikoa;

d) "kudeaketa": hondakinak biltzea, garraiatzea, balorizatzea eta ezabatzea, baita lan horiek nola egiten diren zaintzea eta, itxi ondoren, deskargalekuak zaintzea ere;

e) "ezabaketa": II. eranskinaren A zatian aipatzen diren lan guztiak;

<sup>1</sup> EO L 184 1999.7.17koa, 23. or. 23.

f) "balorizazioa": II. eranskinaren B zatian aipatzen diren lan guztiak;

g) "bilketa": hondakinak biltzea, sailkatzea edota pilatzea, gero garraiatzeko.

2. Lehendabiziko paragrafoaren a) letra zehazteko, Batzordeak, 18. artikulua 3. idatz-zatian aipatutako prozeduraren arabera, I. eranskinean zerrendatutako kategoriei dagozkien hondakinen zerrenda osatuko du. Zerrenda aldian-aldian berrikusiko da, eta, behar izanez gero, aldatu egingo da prozedura berari jarraituz.

##### *2. artikulua*

1. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) atmosferara isurtzen diren gas-efluenteak;

b) beste legediren batek araututakoak:

i) hondakin erradioaktiboak,

ii) baliabide mineralen prospekzio-, erauzketa-, tratamendu-, eta bilketa-lanek eragindako hondakinak, baita harrobiak ustiatzetik sortutako hondakinak ere,

iii) animalia-gorpuak eta nekazaritza-hondakin hauek: nekazaritza-ustiapeneko materia fekalak eta bestelako substantzia natural batzuk, arriskutsuak ez direnak,

iv) hondakin-urak, likido-egoeran dauden hondakinak izan ezik,

v) sailkapenetik kanpoko lehergailuak.

2. Berriazko xedapen bereziak edo zuzentarau honen osagarriak, zenbait hondakin-kategoriaren kudeaketa arautzeko emanak, berriazko zuzentaruaren bidez ezarri ahal izango dira.

##### *3. artikulua*

1. Estatu kideek neurri aproposak hartuko dituzte honako hauek sustatzeko:

a) lehenik eta behin, hondakin-ekoizpena aurreikustea edo gutxitzea, baita horien kaltegarritasuna ere; bereziki neurri hauen bidez:

i) baliabide naturalak gehiago aurrezteko aukera ematen duten teknologia garbiak garatuz,

ii) fabrikazio, erabilera edo deuseztatze ezaugarrietatik, hondakinen kopurua edo kaltegarritasuna eta kutsadura-arriskuak saihesten edo gutxitzen dituzten produktuen

garapen teknikoa eta komertzializazioa sustatuz.

iii) balorizatuko diren hondakinen substantzia arriskutsuak ezabatzeko teknika aproposak garatuz,

b) bigarrenik:

i) hondakinak balorizatzea birziklapenaren, beste erabilera baten, berreskurapenaren edo bigarren erabilerarako lehengaiak sortzeko bestelako jardueraren baten bidez, edo

ii) hondakinak energia-iturri gisa erabiltzea.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote 1. paragrafoko helburuak lortzeko zein neurri hartuko dituzten, honako kasu honetan izan ezik: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentarauaren xedapenak aplikatzen direnean - Zuzentaraia 1998ko ekainaren 22koa, arau eta arautegi teknikoaren inguruko informazio-prozedura<sup>1</sup> ezartzen duena-. Batzordeak horien berri emango die gainerako estatu kideei eta 18. artikuluan 1. paragrafoan aipatzen den lantaldeari ere bai.

#### *4. artikulua*

1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte bermatzeko hondakinak balorizatu edo ezabatzeko direla gizakiaren osasuna arriskuan jarri gabe, eta ingurumena kaltetu dezaketen prozedurak eta metodoak erabili gabe. Eta, bereziki, hau bermatzeko dute:

a) urari, aireari, lurrazalari, faunari eta florari ez zaiola arriskurik eragiten;

b) zarata eta usain deserosorik ez dela eragiten;

c) interes berezia duten paisaiak eta tokiak ez direla arriskuan jartzen.

2. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte hondakinak kontrolatu gabe uztea, isurtzea eta ezabatzea debekatzeko.

#### *5. artikulua*

1. Estatu kideek behar bezalako neurriak hartuko dituzte -beharrezkoa edo komenigarria bada, gainerako estatu kideekin lankidetzan-, ezabatzeko instalazio sare integratua eta egokia sortzeko; horretarako, eskura dauden teknologia hoberenak izango dituzte kontuan, gehiegizko gastua eragiten ez dutenak. Sare horrek, hondakinen ezabaketaren alorrean, Erkidego osoari autosufiziente izateko

<sup>1</sup> EO L 204, 1998.7.21ekoa, 37. or. Azken buruan 2003ko atxikitzeztu Aktak aldatu zuen Zuzentaraia.

aukera eman behar dio, eta, halaber, estatu kide bakoitzari helburu horretara iristen lagundu, baldintza geografikoak eta hondakin-mota jakinentzat instalazio berezien beharra kontuan hartuta.

2. Sare horrek aukera eman beharko du gertuen dagoen instalazio aproposen batean hondakinak ezabatzeko, teknika eta metodo egokienak erabilia, ingurumena eta osasun publikoa ahalik eta gehien babesteko dutela bermatzeko.

#### *6. artikulua*

Estatu kideek Zuzentaraia honen xedapenak aplikatzeaz arduratuko den agintari eskuduna ezarri edo izendatzeko dute (bat edo bat baino gehiago izan daiteke).

#### *7. artikulua*

1. 6. artikulua aipatutako agintari eskudunek 3., 4. eta 5. artikuluetan adierazitako helburuak lortzeko, hondakinak kudeatzeko plan bat edo batzuk ezarri beharko dituzte, ahalik eta lasterren ezarri ere. Plan horietan honako hau adierazi beharko dute bereziki:

a) balorizatu edo ezabatu beharreko hondakin-mota, -kopurua eta -jatorria;

b) agindu tekniko orokorrak;

c) hondakin berezietan buruzko aparteko xedapen guztiak;

d) ezabaketarako toki edo instalazio egokiak.

2. Lehenengo paragrafoan aipatutako planek, esate baterako, hau adieraz dezakete:

a) hondakinak kudeatzeko eskumena duten pertsona fisiko edo juridikoak;

b) balorizazio- eta ezabaketa-lanek eragindako kostuen estimazioa;

c) hondakinak arrazionaltasunez biltzeko, sailkatzeko eta tratatzeko neurri egokiak.

3. Estatu kideak lankidetzan arituko dira, hala badagokio, gainerako estatu kideekin eta Batzordearekin, aipatutako planak ezartzeko, eta Batzordeari jakinaraziko dizkiote.

4. Estatu kideek beharrezko neurriak har ditzakete beren hondakin-kudeaketarako planekin bat ez datozen hondakin-mugimenduak eragozteko. Neurri horien berri emango diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei.

#### *8. artikulua*

Estatu kideek beharrezko xedapenak emango dituzte, hondakin-edukitzaileek hau egin dezaten:a) hondakin-jasotzaile pribatu edo publikoren batera eramane edo II. eranskineko A eta B zatietan

aurreikusitako lanak egiten dituen enpresaren batera eramane ditzan hondakinak; edo b) balorizatzeko edo ezabatzeke arduratzen diren edukizaleak berak har dezan, Zuzendarau honen xedapenen arabera.

#### *9. artikulua*

1. Bigarren eranskinen A zatian aipatutako lanak egiteko dituen edozein establezimendu edo enpresa 4., 5. eta 7. artikuluen aplikatzeari begira, 6. artikuluan adierazitako agintari eskudunak emandako baimena izan beharko du.

Baimen horretan, bereziki, hau adieraziko da: a) hondakin-mota eta -kopurua;

b) agindu teknikoak;

c) segurtasunaren inguruan hartu beharreko arreta-neurriak;

d) hondakinak ezabatzeke tokia;

e) tratamendu-metodoa.

2. Baimenenekin bi gauza gerta daitezke: batetik, aldi jakin baterako ematea, berritzea eta baldintzei eta betebeharrei lotuta izatea; eta, bestetik, ukatzea, aurreikusitako ezabatze-metodoa onargarria ez bada ingurumenaren babeserako, batez ere.

#### *10. artikulua*

4. artikulua aplikatzeari begira, II. eranskinen B zatian aipatzen diren lanak egiteko dituzten establezimendu eta enpresa guztiek horretarako baimena izan beharko dute.

#### *11. artikulua*

1. Kontseiluaren 91/689/EEE Zuzendarauaren xedapenek adierazitakoa baztertu gabe -1991ko abenduaren 12koa, hondakin arriskutsuei buruzkoa<sup>1</sup>-, 9. artikuluan edo 10. artikuluan adierazitako baimena honako hauei eman dakieke:

a) produkzio-tokietan beren hondakinak ezabatzeke arduratzen diren establezimendu edo enpresei, eta

b) hondakinak balorizatzen dituzten establezimendu eta enpresei.

<sup>1</sup>EO L 377, 1991.12.31koa, 20. or. Azken buruan 94/31/EE Zuzendarauak (EO L 168, 1994.7.2koa, 28. or.) aldatu zuten Zuzendaraua.

2. Lehenengo paragrafoan ezarritako salbuespena honako hauetan baino ezin izango da aplikatu:

a) eskumena duten agintariak jardueren-mota bakoitzerako arau orokorrak onartu badituzte eta, horietan, hondakin-mota eta -kopurua eta jardueraren baldintzak ezartzen badira baimenik gabe jardun ahal izateko, eta

b) hondakin-motek eta hondakin-kopuruak edo ezabatze- eta balorizazio-moduak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren establezimendu edo enpresek eskumena duten agintarien aurrean erregistratu behar dute.

4. Estatu kideek, 2. paragrafoa a) letran jasotakoa betez, ezarritako arau orokorren berri eman behar diote Batzordeari.

#### *12. artikulua*

Hondakinak modu profesionalean biltzen edo garraiatzen aritzen diren establezimendu edo enpresek, edo hirugarren batek (negoziatzaileak edo ordezkariak) eskatuta hondakinak ezabatzeke edo balorizatzeke arduratzen direnek, baimenik behar ez badute, eskumena duten agintarien aurrean erregistratuta egon behar dute.

#### *13. artikulua*

9. eta 12. artikuluen artean aipatzen diren lanetan aritzen diren establezimenduak edo enpresak eskumena duten agintariak aldi-aldi ikuskatuko dituzte.

#### *14. artikulua*

1. Bederatzi garren eta hamargarren artikuluetan aipatzen diren establezimendu eta enpresa orok honako hauek egin beharko du:

a) erregistro-liburua bete, eta horretan honako hauek adierazi: hondakinaren kopurua, izaera, jatorria eta, beharrezkoa denean, helmuga, bilketa-maiztasuna, garraiobidea, I. eranskinen zerrendatutako hondakinaren tratamendu-metodoa eta II. eranskinen A eta B zatietan zerrendatutako lanak;

b) horien guztien berri eman 6. artikuluan aipatutako agintari eskudunei, haiek eskatuz gero.

2. Estatu kideek ere eska diezaiekete ekoizleei 1. paragrafoko xedapenak betetzeko.

*15. artikulua*

"Kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioaren arabera, hondakin-ezabaketak eragindako kostuak honako hauek ordainduko dituzte:

- a) hondakinak biltzaileren batera edo 9. artikuluan aipatzen den enpresa-motaren batera eramaten dituen edukitzaileak, edota
- b) hondakinak lehendik zituzten edukitzaileek edo hondakinak eragin dituen produktuaren ekoizleak.

*16. artikulua*

Hiru urtean behin, estatu kideek Zuzentarau honen aplikazioari buruzko informazioa bidaliko dute Batzordera; arlokako txostena izango da, eta Erkidegoko gainerako berriazko zuzentarauak ere jasoko ditu. Batzordeak egindako galdetegi edo eskema batean oinarrituta prestatuko da Txostena, 18. artikuluan, 2. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraituz. Galdetegia edo eskema estatu kideei bidaliko zaie txostenean jaso beharreko aldia hasi baino sei hilabete lehenago. Gero, txostena Batzordera bidaliko da, txostenean jaso beharreko hiru urteko aldia bukatu eta bederatzi hileko epea baino lehen.

Batzordeak Zuzentaruaren aplikazioari buruzko txosten bateratua argitaratuko du, estatu kideen txostenak jaso eta bederatzi hileko epean.

*17. artikulua*

Zuzentaruaren eranskinak aurrerapen zientifiko eta teknikoetara moldatzeko egin beharreko aldaketak 18. artikulua 3. paragrafoan adierazitako prozeduraren arabera onartuko dira.

*18. artikulua*

1. Batzordeak lantalde baten laguntza izango du.

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuko da.

1999/468/EE erabakiaren 4. artikulua 3. paragrafoan aipatzen den epea hilabetekoa izango da.

3. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/568/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere kontuan hartuko da.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikulua 6. paragrafoan aipatzen den epea hiru hilekoa izango da.

4. Lantaldeak erabakiko du bere barne-araudia.

*19. artikulua*

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote Zuzentaru honek araututako alorrean onartzen dituzten barne-zuzenbideko xedapen nagusien testua.

*20. artikulua*

75/442/EEE Zuzentaru indargabetua geratzen da, baina indargabetzeak ez die eragiten Zuzentaruak nork bere zuzenbidean sartzeko transposizio-epenean inguruan estatu kideek dituzten betebeharre; horiek III. eranskinean, B zatian aipatzen dira.

Indargabetutako Zuzentaruari buruzko erreferentziak oraingo Zuzentaruaren oinarrituta daudela ulertuko da, IV. eranskinean dagoen elkarrekikotasun-taularen arabera.

*21. artikulua*

Zuzentaru hau Europako Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeita egunera jarriko da indarrean.

*22. artikulua*

Zuzentaru honen hartzaileak Europar Batasuneko estatu kideak dira.

Estrasburgon egina, 2006ko apirilaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren izenean,*

*Presidentea*

J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean,*

*Presidentea*

H. WINKLER

I. ERANSKINA

**HONDAKIN-KATEGORIAK**

- Q1. Jarraian zehazten ez diren ekoizpen- edo kontsumo-produktuak.
- Q2. Arauak betetzen ez dituzten produktuak
- Q3. Iraungitako produktuak
- Q4. Istripuz isuri diren gaiak, galdu direnak edo bestelako gorabeheraren bat izan dutenak; ezbeharraren eraginez kutsatutako materialak, sistemak eta abar barne.
- Q5. Nahita egindako jardueren ondorioz kutsatutako edo zikindutako gaiak (esate baterako, garbiketeta-lanak egin ondorengo hondakinak, enbalaje-gaiak, edukiontziak eta abar)
- Q6. Osagai erabilgaitzak (esate baterako, erabiltzen ez diren bateriak, katalizatzaile agortuak eta abar)
- Q7. Gehiagotan erabili ezin daitezkeen substantziak (esate baterako, azido kutsatuak, disolbatzaile kutsatuak, tenplaketa-gatz agortuak eta abar)
- Q8. Industria-prozesuetako hondakinak (esate baterako, zepak, destilazio-jalkinak eta abar)
- Q9. Kutsaduraren kontrako prozesuetan sortutako hondakinak (esaterako, gas-garbiketako lohiak, aire-iragazkietako hautsa, iragazki gastatuak eta abar)
- Q10. Mekanizazio/akabera-prozesuetatik sortutako hondakinak (esaterako, torneaketa- edo fresaketa-txirbilak eta abar)
- Q11. Lehengaiak erauzten edo prestatzen sortutako hondakinak (esaterako, meatze- edo petrolio-ustiapeneko hondakinak eta abar)
- Q12. Gai kutsatuak (esaterako, bifenilo polikloratuz -PCB- kutsatutako olioak eta abar)
- Q13. Erabiltzea legez debekatuta dauden gai, substantzia edo produktu guztiak
- Q14. Berez gehiagotan erabili ezin diren edo edukitzailearentzat erabilgarriak ez diren produktuak (esaterako, nekazaritzalanean, etxeetan, bulegoetan, biltegietan, tailerretan eta abarretan baztertzen diren gaiak)
- Q15. Lurzoruen birsorkuntzarako jardueretan sortzen diren gai, substantzia edo produktu kutsatuak
- Q16. Aurreko kategorietan ez dauden substantzia, gai eta produktu guztiak.

II. ERANSKINA A

**EZABATZEKO LANAK**

Oharra: Eranskin honen helburua errealitatean dauden ezabatzeko moduak zerrendatzea da. 4. artikuluaaren arabera, gizakion osasuna arriskuan jarri gabe ezabatu behar dira hondakinak, eta ingurumenean kalteak eragin ditzaketen prozedurak eta metodoak erabili gabe.

D 1 Lurrazal gainean uztea edo barruan sartzea (esate baterako, isurketak eta abar)

D 2 Tratamendua lurlean (esate baterako, hondakin likidoen biodegradazioa edo lohia lurrazalean eta abar)

D 3 Sakonerako injekzioa (esate baterako, ponpa daitezkeen hondakinak putzuetan, gatz-meatzeetan edo faila geologiko naturaletan eta abarretan injektatzea)

D 4 Azaleko urtegitan isurtzea (esate baterako, hondakin likidoak putzuetara, urmaeletara eta abarretara isurtzea)

D 5 Propio egindako tokietan isurtzea (esate baterako, banakako gelaxka itxietan eta estalietan sartzea, elkarrengandik eta ingurumenetik isolatuak)

D 6 Isurketa uretan egitea, itsasoan izan ezik

D 7 Isurketa itsasoan egitea, itsas ohantzean txertatzea barne

D 8 Eranskin honetako gainerako paragrafoetan zehaztu ez den tratamendu biologikoa egitea, baldin eta D 1 eta D 7 artean eta D 9 eta D 12 artean zerrendatutako prozeduraren baten bidez ezaba daitezkeen konposatuak eta nahasketak sortzen baditu

D 9 Eranskin honetako gainerako paragrafoetan zehaztu ez den tratamendu fisikokimikoa egitea, baldin eta D 1 eta D 8 artean eta D 10 eta D 12 artean zerrendatutako prozeduraren baten bidez ezaba daitezkeen konposatuak eta nahasketak sortzen baditu (esate baterako, baporizazioa, lehortzea, kaltzinazioa eta abar)

D 10 Errausketa lehorrean egitea

D 11 Errausketa itsasoan egitea

D 12 Biltegi iraunkorrak sortzea (esate baterako, meategiren batean edukiontziak jarri eta abar)

D 13 Orain arte, D1 eta D 12 artean zerrendatutako edozein operazioen aurreko konbinazio edo nahasketa egitea

D 14 Orain arte, D1 eta D 13 artean zerrendatutako edozein operazioen aurreko berrontziratzea

D 15 Orain arte, D1 eta D 14 artean zerrendatutako edozein operazioen aurreko biltegitratzea (produktzio-lekutik bildu aurretik aldi baterako biltegitratzen denean izan ezik)



II. ERANSKINA B

**BALORIZATZEKO LANAK**

Oharra: Eranskin honen helburua errealitatean dauden balorizatze lanak zerrendatzea da. 4. artikulua araberan, gizakion osasuna arriskuan jarri gabe balorizatu behar dira hondakinak, eta ingurumenean kalteak eragin ditzaketen prozedurak eta metodoak erabili gabe.

R 1 Erregai gisa edo energia sortzeko bestelako bitarteko gisa erabiltzea nagusiki

R 2 Disolbagarriak berreskuratu edo birsortzea

R 3 Disolbagarri gisa erabiltzen ez diren substantzia organikoak birziklatu edo berreskuratzea (konpostajea eta bestelako eraldaketa biologikoak barne)

R 4 Metalak edo konposatu metalikoak birziklatu eta berreskuratzea

R 5 Bestelako materia ez-organikoak birziklatu edo berreskuratzea

R 6 Azidoak edo baseak birsortzea

R 7 Kutsadura gutxitzeko erabili diren osagaiak berreskuratzea

R 8 Katalizatzaileek izaten dituzten osagaiak berreskuratzea

R 9 Olioak birsortzea edo beste erabileraren bat ematea

R 10 Lurrazalaren tratamendua egitea, nekazaritzari onurak edo horiei hobekuntza ekologikoa eragiteko

R 11 Orain arte, R 1 eta R 10 artean zerrendatutako edozein lanetatik lortutako hondakinak erabiltzea

R 12 Hondakinak trukitzea, R 1 eta R 11 artean zerrendatutako lanetan erabiltzeko

R 13 Hondakinak pilatzea, R 1 eta R 12 artean zerrendatutako edozein lanetan erabiltzeko (produktio-lekutik bildu aurretik aldi baterako biltegiatzen denean izan ezik)

III. ERANSKINA

A ZATIA

**ZUZENTARAU INDARGABETUA, ALDAKETAK ETA GUZTI**

(20. artikuluan jasoak)

Kontseiluaren 75/442/EEE Zuzentaraua (EO L 194, 1975.7.25ekoa, 39. or.)

Kontseiluaren 91/156/EEE Zuzentaraua (EO L 78, 1991.3.26koa, 32. or.)

Kontseiluaren 91/692/EEE Zuzentaraua (EO L 377, 1991.12.31koa, 48. or.)

Batzordearen 96/350/EE Erabakia (EO L 135, 1996.6.6, 32. or.)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamendua (EE) (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.)

VI. eranskinean 75/442/EEE Zuzentaruari dagokiona bakar-bakarrik

III. eranskina, 1. puntua baino ez

B ZATIA

**BARNE-ZUZENBIDERAKO TRANSPOSIZIO-EPEAK**

(20. artikuluan jasoak)

Zuzentaraua	Transposizio-epea
75/442/EEE	1977ko uztailaren 17a
91/156/EEE	1993ko apirilaren 1a
91/692/EEE	1995eko urtarrilaren 1a

IV. ERANSKINA

ELKARREKIKOTASUN-TAULA

75/442/EEE Zuzentaraua	Oraingo Zuzentaraua
1. artikulua, sarrera-esaldia	1. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia
1. artikulua, a) letra, lehen lerrokada	1. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra
1. artikulua, a) letra, bigarren lerrokada	1. artikulua, 2. paragrafoa
1. artikulua, b)tik g)rako letrak	1. artikulua, 1. paragrafoa, b)tik g)rako letrak
2. artikulua	2. artikulua
3. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia	3. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia
3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, sarrera-esaldia	3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, sarrera-esaldia
3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, lehen gidoia	3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, i) idatz-zatia
3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, bigarren gidoia	3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, ii) idatz-zatia
3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, hirugarren gidoia	3. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra, iii) idatz-zatia
3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, sarrera-esaldia	3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, sarrera-esaldia
3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, lehen gidoia	3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, i) idatz-zatia
3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, bigarren gidoia	3. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra, ii) idatz-zatia
3. artikulua, 2. paragrafoa	3. artikulua, 2. paragrafoa
4. artikulua, lehen paragrafoa, sarrera-esaldia	4. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia
4. artikulua, lehen paragrafoa, lehen gidoia	4. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra
4. artikulua, lehen paragrafoa, bigarren gidoia	4. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra
4. artikulua, lehen paragrafoa, hirugarren gidoia	4. artikulua, 1. paragrafoa, c) letra
4. artikulua, bigarren paragrafoa	4. artikulua, 2. paragrafoa
5. artikulua	5. artikulua
6. artikulua	6. artikulua
7. artikulua, lehen paragrafoa, lehen lerrokada, sarrera-esaldia	7. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia
7. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada, lehen gidoia	7. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada, bigarren gidoia	7. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada, hirugarren gidoia	7. artikulua, 1. paragrafoa, c) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada, laugarren gidoia	7. artikulua, 1. paragrafoa, d) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, sarrera-esaldia	7. artikulua, 2. paragrafoa, sarrera-esaldia
7. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, lehen gidoia	7. artikulua, 2. paragrafoa, a) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, bigarren gidoia	7. artikulua, 2. paragrafoa, b) letra
7. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, hirugarren gidoia	7. artikulua, 2. paragrafoa, c) letra
7. artikulua, 2. paragrafoa	7. artikulua, 3. paragrafoa
7. artikulua, 3. paragrafoa	7. artikulua, 4. paragrafoa
8. artikulua, sarrera-esaldia	8. artikulua, sarrera-esaldia

75/442/EEE Zuzentaraua.	Oraingo Zuzentaraua
8. artikulua, lehen gidoia	8. artikulua, a) letra
8. artikulua, bigarren gidoia	8. artikulua, b) letra
9. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada	9. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, sarrera-esaldia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, sarrera-esaldia
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, lehen gidoia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, a) letra
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, bigarren gidoia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, b) letra
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, hirugarren gidoia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, c) letra
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, laugarren gidoia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, d) letra
9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, bosgarren gidoia	9. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, e) letra
9. artikulua, 2. paragrafoa	9. artikulua, 2. paragrafoa
10. artikulua	10. artikulua
11. artikulua, 1. paragrafoa, lehen lerrokada	11. artikulua, 1. paragrafoa
11. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, sarrera-esaldia	11. artikulua, 2. paragrafoa, sarrera-esaldia
11. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, lehen gidoia	11. artikulua, 2. paragrafoa, a) letra
11. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren lerrokada, bigarren gidoia	11. artikulua, 2. paragrafoa, b) letra
11. artikulua, 2. paragrafoa	11. artikulua, 3. paragrafoa
11. artikulua, 3. paragrafoa	11. artikulua, 4. paragrafoa
12. artikulua	12. artikulua
13. artikulua	13. artikulua
14. artikulua, lehen paragrafoa, sarrera-esaldia	14. artikulua, 1. paragrafoa, sarrera-esaldia
14. artikulua, lehen paragrafoa, lehen gidoia	14. artikulua, 1. paragrafoa, a) letra

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

14. artikulua, lehen paragrafoa, bigarren gidoia	14. artikulua, 1. paragrafoa, b) letra
14. artikulua, bigarren paragrafoa	14. artikulua, 2. paragrafoa
15. artikulua, sarrera-esaldia	15. artikulua, sarrera-esaldia
15. artikulua, lehen gidoia	15. artikulua, a) letra
15. artikulua, bigarren gidoia	15. artikulua, b) letra
16. artikulua, lehen paragrafoa	16. artikulua, lehen paragrafoa eta 18. artikulua, 2. paragrafoa
16. artikulua, bigarren paragrafoa	-
16. artikulua, hirugarren paragrafoa	16. artikulua, bigarren paragrafoa
17. artikulua	17. artikulua
18. artikulua, 1. paragrafoa	18. artikulua, 1. paragrafoa
18. artikulua, 2. paragrafoa	18. artikulua, 3. paragrafoa
18. artikulua, 3. paragrafoa	18. artikulua, 4. paragrafoa
19. artikulua	

75/442/EEE Zuzentaraua	Oraingo Zuzentaraua
20. artikulua	19. artikulua
—	20. artikulua
—	21. artikulua
21. artikulua	22. artikulua
II. eranskina	II. eranskina
II. ERANSKINA A	II. ERANSKINA A
II. eranskina B	II. eranskina B
	III. eranskina
	IV. eranskina